

Inicio > Ocio y cultura > Cultura


JUAN LUIS LANDA IRUDIGILEA

"Eskolan gure historia sistematikoki ezkutatu ziguten, euskaldunok ez ginen existitzen"

Juan Luis Landak (Errenteria, 1965) lasaitu ederra hartu du aurten. Gipuzkoarra ez da lanak kikiltzen duen horietakoa, baina '1512. In memoriam' liburuak esfortzu berezia eskatu dio, lau urtez luzatu den ahalegina. "Emaitzak merezi izan du hori dena", dio ahopeka

ÑAKI MENDIZABAL ELORDI - Lunes, 26 de Diciembre de 2011 - Actualizado a las 05:39h

☆☆☆☆☆ (3 votos) | [icomenta!](#)  [Recomendar](#)



Juan Luis Landak erruz egin du lan azken lau urteotan (DEIA)

BILBO. Gerra. Nafarroa osoan hamarkada luzeetan zehar hedatu zen gerra, XVI. mendean Erreinu Zaharra triskatu zuen guda, Gaztelak Nafarroa konkistatu zueneko gerra latza. Gerra da eleberri honen ardatza. Eta konkista, bidegabekeria baten kontakizuna. Eleberri diogu, marrazki ederrez josita dagoen arren gidoi mardula ondu duelako Juan Luis Landak liburu berri honetan, *1512. In memoriam*-en. "Arima utzi dut lan honetan, aspaldi izan genuen Erreinu kalamitateak eta eskasiak azaldu guran, baina merezi izan du esfortzuak", dio irudigileak. Lau urte eman ditu Landak liburua idazten, marrazten eta atontzen.


Noiz piztu zitzaizun historiarekiko grina?

Betidanik izan dut grina handia Nafarroako Erreinuari buruz zerikusia zuten istorio guztiekin, batez ere bere erreinuko sorkuntzarekin. Garai ia mitiko hartan euskaldunek Iruñea hiri beneratuaren inauruan

Vista:

 [Más texto](#)


 [Más visual](#)



Información relacionada

- Castilla conquista el 'Viejo Reyno'

publicidad



Transform your homepage into gold

LO + LEÍDO LO + VOTADO LO + COMENTADO

- El colectivo de presos apuesta ahora por abrirse tras la purga de los críticos con ETA
- Los clientes de **Kutxabank** disfrutan ya de sus primeras ventajas
- La fuente de neutrones, bajo sospecha por la adjudicación de contratos
- El 2º entrenador del Albacete: exjugador, vasco y con toque inglés
- Hallada en perfecto estado la joven de 16 años desaparecida desde el día 30 en San Adrián
- Patxi López atrajo a menos espectadores que el rey
- Muere el actor que dobló a Newman y Brando
- Todas las balas son pocas
- Interior disolverá la marcha del sábado si hay gritos por los presos
- Un suburbano con olor a quemado

[ver listado completo >>](#)

LOS BLOGS DE DEIA



Pagainfantas, la "comedia" del año...

Sinopsis: Comedia para toda la Familia (Real) en la que se conjugan amor, poder, ambición y bodorrios de Estado. Un joven y exitoso deportista con cara de perpetuo jet lag (Iñaki Urdangarín) toma nupcias con Cristina, la infanta más hermosa d... [Sigue leyendo](#)

[A veces veo nuestros...](#)



Ninguno es de los nuestros

Ayer he recibido un correo de un desimpatizante que paso a reproducir en lo relevante textualmente: "(...) me ha defraudado con su nueva actitud (...)" ha dejado

zortzirehun urteko burujabetza izatea lortu zuten, Errege Katolikoak era iraingarrian konkistatu zuten arte. Gertaera tragiko haiek oso ondo idatzita geratu ziren, baina jende gutxi ezagutzen ditu. Orain dela sei urte, konkistaren bosgarren mendeurrena hurbil ikusi nuenez, ilustrazioekin kontatzearen beharra sortu zitzaidan.

Eta nobela baten dimentsioa hartu zuen proiektuak. Zenbat denbora eskatu dizu proiektu honek?

Lau urte behar izan ditut, beste lan batzuekin tartekatuz. Hasieran gertaerak eta fikzioa lotzen, eta azken bi urte hauetan ilustrazioak egiten.

Mitologia, historia... Txikitako ajeak?

Tamalez, esan behar dut eskoletan historia ez dela irakasten haurren interesa esnatu nahian. Gure garaian, eta joan den mendeko 70. hamarkadaz ari naiz, erakusten ziguten historia data entsalada potolo bat zen, xarmarik gabekoa. Noski, ikasgai haietan euskaldunak ez ginen existitzen, guk ez geneukan historiari, gure historia sistematikoki ezkutatu egiten zigutelako. Gaztetan, ordea, erabaki nuen Barandianen euskal prehistoriari buruzko ikerlanak irakurtzea. Bere liburuen bidez maitemindu nintzen mitologiak. Aldi berean, Nafarroako Erresumari buruz ere jakin nahi izan nuen. Segituan harrapatu ninduen gaiak eta horretan sakontzea erabaki nuen. Euskaldunek bagenuen historia bat, eta xarma handikoa gainera!

Eta zergatik aukeratu duzu historiako mementu latz hori?

Gure historian zoritxarreko gertaera izan zelako eta erabakiorra egun bizi garen egoera politikoari begira. Euskal Herrian hainbat mendeetan zehar izan genuelako estatu bat, era *ignominioso* eta lotsagarrian desagerrarazi zutena.

Gutxi dakigu Nafarroako konkistaz?

Orokorrean hitz egiten badugu, ezer ez. Neurri batean gai tabua delako. Iritsi da garaia beldurrik eta konplexurik gabe gai hauetaz hitz egiteko.

Liburu hauek hutsune hori betetzera datoz?

Jendearen artean pentsamendu nagusia da historia iraganeko gertaerak direla soilik, baina historian murgiltzen den batek berehala ikusten du gaur egun garena iraganeko gertaera horien ondorioa dela. Datorren urtean une transzendental baten bosgarren mendeurrena beteko da. Momentu egokia Nafarroan zer gertatu zen gogorarazteko.

Nola egikuratu zenuen lana?

Nafarroan 1512an gertatu zen episodio hura irakurtzean eta aztertzean garbi azaldu ziren benetako protagonistak. Hasieran historia hura liburu batean idatzi eta ilustratzea pentsatu nuen, baina laster konturatu nintzen lan pertsonalagoa egin behar nuela.

Eta Xabierreko Francisco agertu zi-tzaizun...

Iruditu zitzaidan personaje erreal horiek erabili behar nituela tragediaren alde humanoa adierazteko. Nobelan Francisco de Xabierrek lehenengo pertsona kontatzen du berak bizi eta sufritu zuena. Bere familiak garesti ordaindu zuen Nafarroa defendatzea. Francisco santu bezala da ezaguna, baina burua altxatuko balu luze hitz egingo luke han bizi izan zen gertakari lotsagarri buruz. Bere santutasunaren gortina jaso eta bere benetako bizitza ezagutarazi

de criticar a Zapatero para ponerse a degüello contra Rajoy sin darle los cien días ... [Sigue leyendo](#)

Feey es libre y gratuito [Haz el tuyo](#)

[Útil manual](#)

Tu información local

MARGEN DERECHA

[Toda la comarca da la bienvenida a Olentzero](#)

M. IZQUIERDA-ENCARTACIONES

[El horno de leña calienta la Nochebuena](#)

COSTA

DURANGUESADO

LLODIO-NERVIÓN

ARRATIA-NERVIÓN

URIBE-TXORIERRI

todo el site

Abadiño

Busca las noticias de tu localidad

Buscar



DEIA Noticias de Euskadi
Síguenos en Twitter



El ATHLETIC al minuto
y toda la ACTUALIDAD DEPORTIVA
síguenos en **twitter**

Anuncios Google

Car Insurance:

Free Info

Insurance Advice,

ÚLTIMA HORA

- 18:24 *Euskadi asume mañana la Inspección de Trabajo*
- 18:12 *El marroquí Zahraoui gana por un segundo en la San Silvestre de Beasain*
- 18:07 *Detienen a varios opositores en Rusia*
- 18:05 *Un mono ardilla robado... famoso en Twitter*
- 18:00 *Herida grave una niña de diez meses por la explosión de un petardo en Cáceres*

facebook



Me gusta

A 4,006 personas les gusta Deia.

Web2PDF

converted by Web2PDFConvert.com

behar da.

Testuan izen asko agertzen dira. Irakurlea amaraun horretan galduko den beldurrik ez?

Kontutan hartu behar da historio luze eta konplexu bat izan zela. Liburuan kontatzen dut pausoz pauso Nafarroako konkista nola mamitu zen, nola egin zen eta ze saiakerak burutu zituzten nafarrek bere erresuma berreskuratzeko. Hau ez da azkar begiratzeko liburua.

Apustu handia Ereinentzat, ezta?

Proiektu interesgarria iruditu zi-tzaien eta konfiantza osoa jarri zuten nigan. Laudorioak besterik es ditut Ereinentzako. Ausardiarekin aurre egin du dimensio handiko lan bati. Egun ez da erraza horrelakorik aurkitzea argitalpen munduan.

Nola ikusten du etorkizuna euskaldun irudigile batek?

Euskal Herrian merkatu txikia dago, baina Espainia mailan egoera ez da askoz hobea. Atzerriko merkatura atera gabe ez da erraza mundu honetan bidea egitea. Hala ere, gure herriak ilustratzaile oso onak eman ditu betidanik, baina ez daukagu molde honetako lanak aintzat har-tzeko ohitura edo kulturarik. Europan, aldiz, guztiz kontrakoa gerta-tzen da.

Gero eta liburu ilustratu gehiago ikusten da merkatuan. Baita euskarazko komikiak ere. Apustua? Moda?

Lehenengo apustua autoreak egiten du beti. Azkenaldi honetan ilustrazioen eta komikien kontsumoa handitzen ari da, dirudienez. Jendeak betidanik maite izan du istorio berriak zurrupatzea eta ilustrazioak berehala begietatik sartzeaz gain ahalmena du hitzekin kontatuezina dena adierazteko.



Se está debatiendo en los FOROS



ACTUALIDAD
AGREDIDAS Y MUERTAS, por LAGUN



CULTURA Y OCIO
CÓMICS, PELÍCULAS, LIBROS, por LAH



POLÍTICA VASCA
DEBATE AL ROJO VIVO, por IKER

☆☆☆☆☆ (3 votos) | [icomenta!](#)



1

[Recomendar](#)

imprimir [tamaño](#)

Publicidad

Medicos sin fronteras
¿Qué consigues con tu ayuda? Sólo 10 € al mes: Vacunamos a 400 niños contra la mening
¡Colabora aquí!

Haz tu comentario

Comentarios

Número de caracteres (500/500)

introduce tu comentario

Condiciones de uso

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es único responsable de sus comentarios.
- Deia se reserva el derecho a eliminarlos.

Nombre (o Nick)

Email (no será publicado)

Web, blog (si tienes)

Comentar sin registrarme

Solo necesitamos tu nombre y email.


Soy usuario registrado

Introduce tus datos.

Quiero registrarme

Sólo tardarás un minuto. E

http://



↓ Introduce el código

Acepto las [condiciones de uso](#)

Enviar


comentario se enviará después de registrarte.

[Acerca de Deia](#) | [Publicidad](#) | [Promociones](#) | [Suscríbete a Deia](#)

deiadigital@deia.com | Visite también www.noticiasdenavarra.com | www.noticiasdegipuzkoa.com | www.noticiasdealava.com

© Deia - Noticias de Bizkaia | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Mapa web](#) | [Contacto](#)

© Editorial Iparragirre, S.A. · Camino de Capuchinos, 6, 5º C Bilbao · Tel 944 599 100, Fax 944 599 120

-  Suscripción por RSS
- Boletín
- Edición impresa en PDF
- Auditada por QJD
- Haznos tu página de Inicio
- Añadir a favoritos